

ATSOAREN ESANAK

Bazen Gorbeia txoko ezkutuko batean gizarteaz at bizi zen atso bat, jendartetik ihes, hanka, alde egin zuen atso jakintsu bat. Jende guztiak zekien haren existentziaz baina soilik gutxi batzuek zekiten nola iritsi harengana.

Herriko neskatxa gazte bat haren bila ibili zen behin eta aurkitu ere egin zuen hainbat saiakeren ostean. Diotenez atsoak nahi izaten zituenak soilik gidatzen zituen harengana; bisitariak atsoak berak aukeratzen zituela eta gauetan haien ametsetan sartzen zela harengana iristeko bidea zein zen erakustera. Hurrengo egunean irrirtzika aritzen zela, baina irrirtzien oihartzuna hautatuaren belarrietara soilik ailegatzen zela. Hautatuak, intuizioari jarraiki, ametsetan ikusitako bidea jarraitzen zuela eta irrirtziek zuzeneko bidetik zihoala ziurtatzen ziotela.

Herriko neskatxa gaztea poz-pez ailegatu zen herrira atsoari egindako bisitaren ostean; saltoka eta brinkoka ailegatu zen, zerua ukitzeko ahaleginak eginez bezala. Jakintsuak herrian mezu bat zabaltzeko ardura eman zion neskatxari, honela hitz egin omen zion: “Jendartea beherantz begira dago, burua, begiak, lepoa beherantz okerturik daramatzate. Mugikorretan eta haien zilborretan bilatzen dituzte erantzunak, baina erantzunak ez dira bertan topatzen. Erantzunak goian daude, zeruan, izarretan. Jendarteak gorputzen posizio atrofiatu, itxi, berekoia aldatu beharra dauka. Burua, begiak, lepoa gorantz eramaten hasi eta kanpora, ingurura, zerura begiratu. Bestela etorriko da zerbait eta jendartea egongo da horrela, behera, mugikorretara, zilborretara begira, atrofiatuta. Eta horrela gauza horrek garaitu egingo gaitu”.

Atso jakintsuak ezkutuko zientzia askoren ezagutza gordetzen zuen berarekin Gorbeia txoko hura ere ezkutuko hartan. Andere misteriotsua zen, ia mitologikoa; jakintsua zen eta jaramon egin behar zitzaion. Jendarteak, ordea, entzungor egin zien haren esanei. Neskatxa mandatariak ahaleginak egin, egin zituen, baina alferrik. Kaleak eta enparantzak ibili zituen herritarren arreta eskuratzen saiatzen, baina herritarrak behera, mugikorretara, zilborretara begira segitzen zuten, atrofiatuta eta entzungor. Baten batek altxatu zuen inoiz burua segundo batez, baina inertziak berriro beherantz okertu zion lepoa.

Horrela pasa ziren egunak, asteak, hilabeteak eta urteak eta etorri zen atsoak aurreikusi eta ohartarazi zuena. Etorri zen zerbait hori eta jendartea zegoen behera, mugikorretara, zilborretara begira, atrofiatuta; eta hala zerbait horrek garaitu egin zuen jendartea.